Azpeitiko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ETA AZPEITIKO UDALAK LOIOLAKO SANTUTEGIKO PARKEA MANTENTZEKO ETA KONTSERBATZEKO 2019KO OTSAILAREN 11N SINATU ZUTEN LANKIDETZA-HITZARMENA LUZATZEKO ETA ALDATZEKO GEHIGARRIA**

**ADENDA DE PRORROGA Y MODIFICACION DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO EL 11 DE FEBRERO DE 2019 ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA PARA EL MANTENIMIENTO Y CONSERVACION DEL PARQUE DEL SANTUARIO DE LOIOLA.**

Donostian, 2023ko otsailaren 10ean.

En San Sebastián, a 10 de febrero de 2023.

**ELKARTU DIRA**

**REUNIDAS**

Alde batetik, **RAFAELA ROMERO POZO** andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua.

De una parte, doña **RAFAELA ROMERO POZO,** diputada foral de Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Bestetik, **NAGORE ALKORTA ELORZA andrea,** Azpeitiko Udaleko alkatea.

De otra, doña **NAGORE ALKORTA ELORZA,** alcaldesa del Ayuntamiento de Azpeitia.

**ESKU HARTZEN DUTE**

**ACTÚAN**

RAFAELA ROMERO POZO andreak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren legezko ordezkari gisa, ondare arloan esleituak dituen eskumenak erabiliz.

Dña. RAFAELA ROMERO POZO en representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en ejercicio de las atribuciones que tiene conferidas en materia de patrimonio.

NAGORE ALKORTA ELORZA andreak, Azpeitiko Udaleko legezko ordezkari gisa, Udal Batzarraren 2023k otsailaren 7an hartutako erabakiaren bidez agiri hau sinatzeko berariaz baimendua.

Dña. NAGORE ALKORTA ELORZA en representación legal del Ayuntamiento de Azpeitia, autorizada expresamente para la firma del presente documento por acuerdo adoptado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión de 7 de febrero de 2023.

Parte hartzen duten alderdiek, bakoitzak duen karguan eta ordezkaritzan, gehigarri hau egiteko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta, gehigarria egiteko, honako hau

Las partes intervinientes, en razón de sus respectivos cargos y de la representación que ostenta, se reconocen capacidad suficiente para otorgar la presente adenda y a tal efecto,

**ADIERAZTEN DUTE**

**I.-** 2019ko otsailaren 11n, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa den Loiolako Santutegiko Parkea mantentzeko eta kontserbatzeko lankidetza-hitzarmena sinatu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Azpeitiko Udalaren artean.

**II.-** Hitzarmen horren bosgarren klausulan, alderdi sinatzaileek adostu zuten hitzarmenak sinatu zenetik aurrera izango zituela ondorioak eta lau urteko indarraldia izango zuela.

Nolanahi ere, aurreikusi zen beste lau urtez luzatu ahal izango zela, alderdien ahobatezko adostasunez, indarraldia amaitu baino lehen formalizatuta.

**III.-** Bi alderdiak pozik daude hitzarmen horretan lortutako emaitzekin, hitzarmena ondo bete direla aitortzen diote elkarri, eta hitzarmena beste lau urtez luzatu nahi dute.

**IV.-** Aldi berean, beharrezkoa da hasierako hitzarmena aldatzea, Azpeitiko Udalak egin beharreko jarduketen artean beste hau ere sartzeko: “kantina” izeneko etxolan dauden komun publikoak garbitzea eta mantentzea, hartara zerbitzua etorkizunean jarraituki izango dela bermatzeko, orain arte bezala kantinaren ustiapenaren mende egon beharrean.

Jarduketa hori eransteak Foru Aldundiaren urteko gehieneko ekarpena aldatzea dakar: ekarpena 6.240 euroan handitzea, 90.514 euroko kopurura iritsi arte.

**V.-** Gipuzkoako Foru Aldundia, lurzatiaren jabea denez, jarduten da 8/1996 Foru Arauak -uztailaren 9koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondareari buruzkoak- ezarritako funtzio eta eskumenak baliatuz, eta 2/2006 Legeak -ekainaren 30ekoak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak- lurjabeei ezartzen dizkien betebeharrak betez.

**EXPONEN**

**I.-** Que el 11 de febrero de 2019 se suscribió el convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Azpeitia para el mantenimiento y conservación del Parque del Santuario de Loiola, propiedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**II.-** Que en la cláusula quinta de dicho convenio las partes firmantes acordaron que el convenio surtiría efectos desde su firma y tendría una vigencia de cuatro años.

No obstante, se preveía asimismo que pudiera ser prorrogado por un período de otros cuatro años adicionales, por acuerdo unánime de las partes, a formalizar antes de que finalice su plazo de vigencia.

**III.-** Que ambas partes se encuentran satisfechas de los resultados alcanzados por dicho convenio, reconocen mutuamente el buen cumplimiento y desean prorrogar el mismo por otro período de cuatro años.

**IV.-** Que al mismo tiempo se hace necesario modificar el convenio inicial, al objeto de incluir, entre las actuaciones a realizar por el Ayuntamiento de Azpeitia, la limpieza y mantenimiento de los aseos públicos sitos en el caseta conocida como cantina, para garantizar el servicio en el futuro de forma continuada, en vez de depender de la explotación de la cantina, como hasta ahora.

Esta inclusión conlleva la modificación de la aportación máxima anual de la Diputación Foral, que se ve incrementada en 6.240 euros, hasta alcanzar la cifra de 90.514 euros.

**V.-** La Diputación Foral de Gipuzkoa, en su calidad de propietaria del terreno, actúa en el ejercicio de las funciones y competencias establecidas en la Norma Foral 8/1996, de 9 de julio, de Patrimonio del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en cumplimiento de las obligaciones exigidas a los propietarios de terrenos en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Bestalde, Azpeitiko Udala jarduten da kontuan hartuta 7/1985 Legeak -apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak- esleitzen dizkion eskumenak, parke eta lorategi publikoen esparrukoak eta argiteria publikoko, kale garbiketako eta bide publikoen zoladurako zerbitzuen esparrukoak.

Por su parte, el Ayuntamiento de Azpeitia actúa conforme a las competencias en materia de parques y jardines públicos y de prestación de los servicios de alumbrado público, limpieza viaria y pavimentación de las vías públicas, atribuidas en los artículos 25 y 26 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Aurreko guztia kontuan hartuta, alderdiek erabakitzen dute Loiolako Santutegiaren Parkea mantentzeko eta kontserbatzeko 2019ko otsaialaren 11an sinatutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Azpeitiko Udalaren arteko lankidetza hitzarmenaren Luzapen eta Aldaketa Gehigarri hau sinatzea, honako klausula hauen arabera:

En virtud de cuanto antecede, las partes acuerdan suscribir la presente Adenda de Prórroga y Modificación del Convenio de Colaboración suscrito el 11 de febrero de 2019 entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Azpeitia para el mantenimiento y conservación del Parque del Santuario de Loiola, con arreglo a las siguientes,

## K L A U S U L A K

## C L Á U S U L A S

**LEHENENGOA.- BIGARREN KLAUSULA ALDATZEA (JARDUKETEN DEFINIZIOA).**

Lankidetza-hitzarmeneko bigarren klausula aldatzen da, jarduketen definizioari buruzkoa, eta, horrela, hitzarmenean sartzen da “kantina” izeneko etxolan dauden komun publikoen garbiketa.

Bigarren klausula honela geratuko da hitzez hitz:

**“Bigarrena.- Jarduketen definizioa.**

*1. Azpeitiko Udala arduratuko da Loiolako Parkea garbitzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko lanez.*

*Azpeitiko Udalak gauzatu behar dituen ohiko jarduketa horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko ditu. Jarduketa horiek, funtsean, hauek dira:*

- *Kantinako komun publikoak garbitzea eta mantentzea.*
- *Berdeguneak eta hartxintxarreko bideak garbitzea. Lan horien barruan sartzen dira: belarra moztea, palaxuak moztea, zuhaitzak urtean behin kimatzea eta, beharrezkoa denean, zuhaitzak moztea.*

**PRIMERA.- MODIFICACIÓN DE LA CLÁUSULA SEGUNDA (DEFINICIÓN DE LAS ACTUACIONES).**

Se modifica la clásula segunda del convenio relativa a la definición de las actuaciones, con el fin de incluir en el convenio la limpieza de los aseos públicos sitos en la caseta conocida como “cantina”.

La cláusula segunda queda con el siguiente tenor literal:

**“Segundo.- Definición de las actuaciones.**

*1. El Ayuntamiento de Azpeitia se hará cargo de las labores de limpieza, mantenimiento y conservación del Parque de Loiola.*

*Estas actuaciones de carácter ordinario a ejecutar por el Ayuntamiento de Azpeitia serán financiadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa y consistirán, resumidamente, en lo siguiente:*

- *Limpieza y mantenimiento de los aseos públicos sitos en la cantina.*
- *Limpieza de zonas verdes y caminos de gravilla. Incluye corte de césped, corte de setos, poda anual arbolado y tala de arbolado cuando resulte precisa.*

- *Zolatutako eremuak egunero garbitzea.*
- *Espaloiak eta harriz zolatutako plazak presiopeko urez garbitzea.*
- *Parkeko estatuak eta monumentuak garbitzea.*
- *Hiri altzariak mantentzea.*
- *Informazio panelak mantentzea eta berritzea.*
- *Pibote ezkutagarrien sistema mantentzea.*
- *Argiteria publikoa mantentzea (argi puntuak).*
- *Errekako harri legarrezko bideak birjartzea.*
- *Zuhaitzak birjartzeko landaketa berriak egitea.*

*2. Azpeitiko Udalak zuzenean gauzatu ditzake lan horiek, edo 7/1985Legeak -apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak- 85.2 artikuluan ezarritako kudeaketa aukeretakoren bat erabiliz. Jarduketa horiek gauzatzeko egin daitezkeen kontratuek sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitakoa beteko dute.*

*3. Horrez gain, Azpeitiko Udala arduratuko da, bere kontura, Parkea zaintzeaz, eta baita Parkeko argiteria publikoaren kostua ordaintzeaz ere.*

*4. Azpeitiko Udalak urtero helaraziko dio Foru Aldundiari, jakin dezan, parkearen esparruan egin diren jardueren eta ekitaldien zerrenda, bai udalak berak antolatutakoak, bai hirugarrenek antolatutakoak, udalak aldez aurretik baimendutakoak. Nolanahi ere, jarduera eta ekitaldi horiek bateragarriak eta egokiak izan beharko dute parkearen ingurunearekin.*

*5. Loiolako Parkeak behar dituen hobekuntza jarduketa puntualak, aparteko izaera dutenak, dokumentu honen bederatzigarren klausulan xedatutakoaren arabera gauzatuko dira."*

- *Limpieza diaria de las zonas pavimentadas.*
- *Limpieza de aceras y plazas de pavimentos pétreos con agua a presión.*
- *Limpieza de las estatuas y monumentos del Parque.*
- *Mantenimiento del mobiliario urbano.*
- *Mantenimiento y renovación de los paneles informativos.*
- *Mantenimiento del sistema de pilonas escamoteables.*
- *Mantenimiento del alumbrado público (puntos de luz).*
- *Reposición de caminos de grava de canto de río.*
- *Nuevas plantaciones de reposición de arbolado.*

*2. El Ayuntamiento de Azpeitia ejecutará dichos trabajos por sí, o a través de cualquiera de las formas de gestión establecidas en el artículo 85.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local. Los contratos que se celebren para el desarrollo de dichas actuaciones se ajustarán a lo previsto en la legislación de contratos del sector público.*

*3. Además, el Ayuntamiento de Azpeitia se encargará, a su costa, de la vigilancia del Parque y del coste del alumbrado público en el mismo.*

*4. El Ayuntamiento de Azpeitia dará traslado anualmente a la Diputación Foral, a los solos efectos de su conocimiento, de la relación de actividades y eventos que se hayan celebrado en el recinto del Parque, bien organizados por el propio ayuntamiento, bien por terceros, previamente autorizados por el ayuntamiento. En cualquier caso, dichas actividades y eventos deberán ser compatibles y adecuadas con entorno en el que se sitúa el Parque.*

*5. Las actuaciones puntuales de mejora, de carácter extraordinario, que requiere el Parque de Loiola se regirán conforme a lo dispuesto en la cláusula novena de este documento."*

**BIGARRENA.- HIRUGARREN KLAUSULA ALDATZEA (GARBITZE, MANTENTZE ETA KONTSERBATZE LANEN FINANTZAKETA).**

Lankidetza-hitzarmenaren hirugarren klausula (finantzaketari buruzkoa) aldatu egiten da, Foru Aldundiaren urteko gehieneko ekarpena handitzeko, kantinako komun publikoak garbitzea eta mantentzea hitzarmenaren objektuan sartzearen ondorioz.

Hirugarren klausula honela idatzita gelditzen da:

***"Hirugarrena.- Garbitze, mantentze eta kontserbatze lanen finantzaketa.***

*1. Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko ditu Loiolako Parkea garbitzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko lanak, bigarren klausulan deskribatuak.*

*2. Bigarren klausulan deskribatutako lanak gauzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo duen urteko gehieneko ekarpena 90.514 euro da.*

*3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpena egungo aurrekontuko partida honen kontura ordainduko da, eta hurrengo aurrekontuetan jasotzen den partida baliokidearen kontura:*

- *1 0520.210.211.00.01.*

*4. Gipuzkoako Foru Aldundiak, urtero, otsailean egingo du ordainketa, Azpeitiko Udalak zehaztuko duen kontura transferentzia eginez, aurreko urteko egindako lanak justifikatu ondoren.*

*Horretarako, Azpeitiko Udalak, hilabete lehenago, egindako jarduketen memoria xehatua aurkeztuko du, Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiko teknikariek onespena eman dezaten.*

*5. Azpeitiko Udalak bere gain hartuko ditu sor litezkeen gorabehera ekonomikoak, hala nola prezio berrikuspenen ondorioz sortzen direnak, kontratua likidatzearen ondoriozkoak, edo Loiolako Parkea garbitzeko, kontserbatzeko eta*

**SEGUNDA.- MODIFICACIÓN DE LA CLAÚSULA TERCERA (FINANCIACIÓN DE LA EJECUCIÓN DE LAS LABORES DE LIMPIEZA, MANTENIMIENTO Y CONSERVACIÓN).**

Se modifica la cláusula tercera del convenio de colaboración, relativa a la financiación, con el objeto de incrementar la aportación máxima anual de la Diputación Foral, como consecuencia de la inclusión de la limpieza y mantenimiento de los aseos públicos sitos en la cantina en el objeto del convenio.

La cláusula tercera queda redactada con el siguiente tenor:

***"Tercera.- Financiación de la ejecución de las labores de limpieza, mantenimiento y conservación.***

*1. La Diputación Foral de Gipuzkoa asumirá la financiación de las actuaciones de limpieza, mantenimiento y conservación del Parque de Loiola, descritas en la cláusula segunda.*

*2. La aportación máxima anual de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la ejecución de los trabajos descritos en la cláusula segunda. asciende a 90.514 euros.*

*3. El pago de la aportación de la Diputación Foral de Gipuzkoa se efectuará con cargo a la siguiente partida del presupuesto actual, y la equivalente que se recoja en los sucesivos presupuestos:*

- *1 0520.210.211.00.01.*

*4. El pago se hará efectivo por la Diputación Foral de Gipuzkoa en el mes de febrero de cada año, mediante transferencia en la cuenta que especifique el Ayuntamiento de Azpeitia, previa justificación de los trabajos realizados el año anterior.*

*A tal efecto, el Ayuntamiento de Azpeitia presentará con un mes de antelación, una memoria detallada de las actuaciones desarrolladas, con objeto de recabar la conformidad del personal técnico de la Dirección General de Ordenación del Territorio.*

*5. El Ayuntamiento de Azpeitia asumirá las variaciones económicas que se puedan producir, por revisiones de precio, liquidación de contrato, así como cualquier otra modificación que se apruebe en la ejecución de los servicios de*

*mantentzeko zerbitzuak egikaritzean onets litekeen beste edozein aldaketaren ondoriozkoak."*

*limpieza, conservación y mantenimiento del Parque de Loiola."*

**HIRUGARRENA.- HITZARMENAREN LUZAPENA.**

**TERCERA.- PRORROGA DEL CONVENIO.**

Alderdi sinatzaileek erabakitzen dute Loiolako Santutegiko parkea mantentzeko eta kontserbatzeko lankidetza-hitzarmena 2026ko otsailaren 10era arte luzatzea.

Las partes firmantes acuerdan la prórroga hasta el 10 de febrero de 2026, del convenio de colaboración para el mantenimiento y conservación del Parque del Santuario de Loiola.

Beraz, lankidetza-hitzarmenaren gehigarri honek 2023ko otsailaren 11tik 2026ko otsailaren 10era arte izango ditu ondorioak. Hortaz, lau urte-aldi iraungo du.

Por lo tanto, los efectos de la presente adenda a este convenio de colaboración, se extenderán desde el 11 de febrero de 2023 hasta el 10 de febrero de 2026, abarcando con ello cuatro periodos anuales.

Ondorioz, hitzarmenean eta gehigarri honetan ezarritakoaren arabera, Foru Aldundiak finantzatuko dituen jarduketak Azpeitiko Udalak 2025eko abenduaren 31ra arte egindako lanak izango dira.

En consecuencia, de acuerdo con los términos del convenio y de la presente adenda, las actuaciones financiadas por la Diputación Foral se extenderán a los trabajos realizados por el Ayuntamiento de Azpeitia hasta el 31 de diciembre de 2025.

**LAUGARRENA.- HITZARMENAREN GAINERAKO ATALEK INDARREAN JARRAITZEA.**

**CUARTA.- SUBSISTENCIA DEL RESTO DEL CONVENIO.**

Gehigarri honetan berariaz xedatu ez den guztiari dagokionez, hitzarmenean ezarritakoa beteko da. Alderdiek berretsi egiten dute hitzarmen hori; hitzarmearen zati da dokumentu hau, zati banaezina.

En todo lo no estipulado expresamente en la presente Adenda se estará a lo establecido en el Convenio, el cual las partes ratifican y del que el presente documento forma parte integrante e inseparable.

Eta ados daudela adierazteko, bi aldeek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan zehaztutako lekuan eta egunean.

Y en prueba de conformidad firman ambas partes el presente documento por duplicado, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

**Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean/**
**Por la Diputación Foral de Gipuzkoa,**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

18601122X
RAFAELA ROMERO
(R: P2000000F)
2023.02.10
12:57:46 +01'00'

**Sin. / Fdo.: Rafaela Romero Pozo**

**Azpeitiko Udalaren izenean/**
**Por el Ayuntamiento de Azpeitia,**

72471832M
NAGORE
ALCORTA (R:
P2001900F)

Firmado digitalmente por 72471832M NAGORE ALCORTA (R: P2001900F)
Fecha: 2023.02.10
12:08:30 +01'00'

**Sin. / Fdo.: Nagore Alkorta Elorza**